

ELIKADURA-BURUJABETZAREN, INGURUMEN-HEZKUNTZAREN ETA LURRALDEAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO ESTATU-MAILAKO ITUNA.

*2015-2031 aldirako
estrategia*

"INTERVEGAS FEDERAZIOAREN I JARDUNALDIAK. Elikadura-burujabetza eta Lurraldearen Babeserako 2015-2031 aldirako estrategia: Laborantza-lurraldeen Zaintza eta Dinamizazioa" jardunaldia dela bide, Granadan bilduta, itun hau sinatzen duten kolektiboek ondorengo hitzartu dute: kultur-balio handiko nekazaritza-espazioen berreskurapena hastea, Nekazaritzarako Lurralde Historikoen (aurrerantzean NLH) elikadura-burujabetzatik, baterako eboluziotik eta hauen iraunkortasunetik abiatuta.

Kolektibo hauek **NLHei eragingo lieken ondorengo neurrien dekalogo**a sustatzeko eta gauzatzeko elkarlanean aritzea **hitzartzen dute**, honako hauen jakitun: **NLHen nekazaritza-, kultur-, hezkuntza-, paisaia- eta ingurumen-balioa**, jasaten dituzten narriadura eta desnaturalizazioa, ondare-identitatearen nahiz beraien inguruko identitatearen euskarri-eginkizuna, eta aberastasun- eta lanpostu-iturri izateko duten potentziala.

1.- Zainketa eta araudiaren egokitzapena. Gai hauetan eskumenak dituztenei eskatzea araudian egin beharreko aldaketak egin ditzatela, ondorengoak lortzeko: NLHen ingurumen- eta nekazaritza-sailekin bat hastea, hauen lurralde nekazaritza-jarduerekin bateraezina den beste edozein erabilaren aurrean babestea, eta lurralde hauetako espazio narriatuak berreskuratzeko prozesuak abiatzea. Horrez gain, hau ere eskatzen da: komunalak komunal izateagatik babestea eta errespetatzea, baita horiek kudeatzen dituzten erakundeak ere. Horretarako, neurri legegileak proposatuko dira administrazio publikoetako alor guztietan.

2.- Nekazaritza jardueraren dinamizazioa. Ezinbestekoa da salerosketa-bide laburrak eta osagarriak diren bestelako bideak faboratuko dituzten **neurriak** hartzea, baita NLHetako produktuen balioestea ere, pixkanaka areagotzen saiatuz elikadura osasungarriago baterako jardunbide hobeen sarrera. Laborantza dibertsifikatzea beharrezkoa dela kontsideratzen da, baita sozialagoak eta ekologikoki iraunkorrak diren produkzio-moldeak erabiltzea ere. Ekintza horiek **berrikuntza** txertatu beharko dute agroekologikoagoa izango den nekazaritzako jarduerara bat bideragarria eta duinki ordaindua egiteko; ekoizleen elkarteari **teknikoki laguntzea**, bai baterako merkaturatzean, eta hala behar izanez gero, baita errentagarritasun eta legezketasun baldintzetan jarduerara gauzatzeko ahalbidetzen duten neurri fiskalekin ere. Gainera, gizarte-interesdun laborantza eta tokiko produktuen merkatuak sustatuko dira, aldi baterakoak zein egonkorak.

3.- Baserritarren eginkizunen aintzatespena. NLHetako aktore nagusiak nekazaritza eta abeltzaintzan lan egiten duten eta bertatik bizi diren gizon-emakumeak dira, norberaren kontura zein besteren kontura. Kolektibo hauek eta beraien ordezkariak aintzatespen eta protagonismoa izango dute bizitza sozial eta produktiboan. Horretarako, sektorea profesionalizatzea bideratutako laguntzak hezurramitu behar dira, egile hauek eta beraien jarduerak suposatzen duten onura soziala kontuan hartuz, komunitatearentzako bereziki eta gizartearentzako orokorki:

- Elikagaiak eta lehengaiak ekoizteko gaitasuna.
- Paisaien sorrera, kontserbazioa eta berroneratzea; hala, ingurumenaren babes eta defentsan, baita nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen iraunkorrean ere, ezinbesteko euskarria izango da.
- Autoenpleguaren eta lanpostuen sorrera.
- Lurralde hauetako produktuak in situ ekoiztu eta eraldatzeko ekoizpen- eta eraldaketa-ehunaren sorrera, batez ere artisau-era eta kooperatibismoa sustatuz.

Itun hau izenpetzen duten kolektibo guztiek konpromisoa hartzen dute lurraldearen maneuari eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardunbideari buruzko ezagutza berreskuratu eta transmititzeko ekimenak gauzatzeko.

4.- NLHen berreskurapenerako bultzada eta finantziarioa. NLHak **jaki-gordailu iraunkor eta aberastasun-iturri lez errespetatu eta laguntzea**. NLHek benetako jaki-gordailu eta lanpostu- eta aberastasun-iturri bezala duten eginkizuna sostengatzea **xede** duen edozein ekimen ezinbestean aintzat hartzeko izango da hauen sustatze eta finantziariorako: uraren ziklo integrala, mugikortasun iraunkorra, laborantza agroekologiko bihurtzeko laguntza, nekazari eta abeltzain berrien formazioa, merkaturatze-plana eta bestelako edozein ekoizpen-, eraldaketa- edo nekazaritza eta abeltzaintzako sustapen.

5.- NLHak eta beraien balio historikoak.

5.a. Dagokien administrazioek lurralde horien ondare-ondasunen katalogoa eguneratuko dute, berreskurapen eta dinamizazio plan batekin. Ondasun horien lehenetsuneko erabilera nekazaritza-ekoizpena izango da.

5.b. Dagokion legegintza-esparruan, **NLHen balioen definizio eta agerbideentzako kudeaketa eta garapen iraunkorrerako Plan Estrategiko** bat gauzatu beharko da, honakoen bitartez bere ezaugarriak laburbiltzea ahalbidetuko duena: bere baliabideen etorkizuna (baliabide sozialak, ondarezoak, kulturalak, geografikoak, nekazaritza-espazioak, naturalak, hirigintza-espazioak, ekonomikoak eta bestelakoak) eta bertako biztanleen inplikazioa. Gainera, elkarriketa-elementu bezala balioko du administrazioen artean bertan bizi direnen neurriak egiteko garapen-planak diseinatze, eta, era berean, landa-ingurunearekin integratzeko erreferentzia gisa ere balioko du, kanpoko jendearen aurrean bere ekoizpen-jarduerara eta paisaia-ingurunea zaintzera eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzera zuzenduta dagoen kalitatezko habitat ireki bat lez azaltzeko.

6.- Lurralde-egituraren mantentzea eta zaintza. Lurraldeetako ibai, ubide, bide eta abelbideak lurralde horiek antolatzen dituzten elementuak dira. Elementu horien berreskurapena, seinaleztapen egokia, mantentzea eta zaintzea, nekazaritzarako erabilerentzako zein iraunkorrak diren erabilera osagarrientzako, beraien erabilera-balioak ingurumen-balioekin bateratuko dituzten berariazko programen xede izango dira. Elementu horietan gauzatuko diren jardun integralek lehentasuna izango dute izaera berdina duten besteen gainean.

7.- NLH eta Hezkuntza (Hasierako eta Etengabeko Lanbide Heziketa barne, baita biodibertsitatearen, ekoizpen iraunkorraren eta ingurumen-babesaren inguruko Hezkuntza Programak ere). Administrazio publiko ezberdinak elkarlanean arituko dira, ikasturte bakoitzerako eta NLHei buruz, formazio-ekintzen programa oso bat lortzeko. Programa horrek, belaunaldi-errelebo egoki bat bermatzeko, lan-munduan txertatzeko programak ezarriko ditu, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren inguruko eta NLHen inguruko beharrezko sentsibilizazioa, ezagutza eta balioestea lagunduko ditu. Hezkuntza-zentruak material didaktikoekin hornituko dira, eta estatu-mailako hezkuntza saria sortuko da, urterokoa: "Hezkuntza-esperientzia onena NLHei dagokienez".

8.- NLHen produktuak kontsumo-, banaketa- eta merkaturatze-zirkuitu laburretan sartzea. Merkatuetan, NLHen produktuen komertzializazio zuzena sustatuko duten neurriak hartzea, eta, bereziki, kontsumitzaileentzako zuzeneko salmenta-puntuak diren baserriarren merkatuak, hirietan eta NLH hauen biztanleguneetan batez ere. Araudietan beharrezko aldaketak egingo dira **hiri-jantokietan (eskoletakoetan, ospitaletakoetan, izaera soziala dutenetan eta laguntza-izaera dutenetan bereziki)** eta administrazio publikoen menpe dauden jantoki guztietan inguruetako NLHetatik datozen produktuak eskaintzeko.

9.- NLHen balioak gizartera oro har zabaltzea. Informazio-, kontzientziazio-, sustapen- eta sentsibilizazio-kanpainak. Ezagutzen den hori bakarrik maite eta kontsumitzen denez gero, itun honen sinatzaileek beraien hitzaldi, kanpaina eta agendetan lurralde horien balioak **sartzea** hitzartzen dute.

10.- NLHen sarerako Estatu-mailako Batzorde bat sortzea. Helburu horiek lortzeko, Nekazaritzan eskumenak dituzten erakundeetan, Hiriaren Inguruko Nekazaritzaren Europako Behatokiaren baitan kokatuko den NLHen Sarearen Estatu-mailako Batzordea sortzea eskatzen da.

***Elikadura-burujabetza bermatzeko beharrezkoak dira
Nekazaritzarako Lurralde Historikoak.
Lurraldearen bestelako garapen bat posible da.
2015-2030 aldirako estrategia.
"Lehen sektorea, lehenengo"***



**Granadan, 2015eko azaroaren 14ean,
larunbata.**